

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

1. JARRAIPEN-TXOSTENA

2022ko otsaila-2023ko martxoa

Aurkibidea

1.	SARRERA	1
2.	URTEKO PLAN OPERATIBOAREN LABURPENA (2022ko OTSAILA-2023ko MARTXOA)	3
3.	MEMORIA GOBERNU ONAREN EREMUAN	2
11.	BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA	2
21.	GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA	8
31.	LANGILEEN BERDINTASUNEZKO KUDEAKETA	10
4.	KOMUNIKAZIOAREN ESPARRUKO MEMORIA	11
41.	BARNEKO KOMUNIKAZIOA	11
51.	KANPOKO KOMUNIKAZIOA	12
5.	GIZARTE-ERAGINAREN ESPARRUKO MEMORIA	14
61.	EMAKUMEEN AHALDUNTZE KOLEKTIBO ETA SOZIALA	14
71.	EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTA	15

1. SARRERA

2022ko urtarrilean Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiak (aurrerantzean, Batzar Nagusiak) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Berdintasun Plana onetsi zuen, beraz, erakundearen aplikatzeko 4 urterako denbez, 2025era artekoa izango da.

II. Planaren lehenengo aldia gauzatu da, eta plangintza garatzeari dagokionez, agiri honek jarraipenaren gaineko informazioa du. Urteko plan operatiboak egin eta jarraitzea aurrez ikusi arren, kasu honetan, epealdi horri laneko hiru hileko bat gehiago erantsiko zaio, oraingo legegaldia apirilaren lehenengo astean amaitzen baita. Beraz, egokitzat jo da epealdia zabaltzea, oraingo Berdintasun Taldeak II. Planaren lehenengo etapa honetan bere jarraipen-zeregina amaitu dezan.

Hurrengo atalean laburpen modura taula bat ageri da 2022rako eta 2023ko lehen hiru hilekorako aurrez ikusitako ekintzen inplementazio-mailarekin. Hala, ikusi daiteke ekintzak lortze-ehuneko altuan garatu direla.

Hirugarren atalak Gobernu Onaren eremua baloratzeko informazioa du. Kasu honetan, lorpen bezala azpimarratu daiteke berdintasunaren aldeko konpromisoan aurrerapausoak emateko lana, batez ere, Berdintasun Taldea indartzeari eta langile lan-kontratudunentzako eta talde batzarkideentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza ekintzak bultzatzeari dagokionez. Halaber, batzordeak eratzean paritatearen garrantzia kontuan hartu da. Dena den, oraindik batzuetan generoko rol eta estereotipo jakin batzuk erreproduzitzen dira.

Gobernu Onaren eremuko beste ildo bat da genero-ikuspegia txertatzen aurrera egitea. Hala, identifikatu ahal izan da Berdintasun Taldearentzat intereseko gaia dela eta araudian genero-eraginari buruzko txostenak baloratzeko orduan eta, nola ez, kontratazio publikoaren eremuan urrats garrantzitsuak egin direla. Betetzear dagoen erronka da sexuaren arabera bereizita jasotzen diren datuen genero-analisan aurrerapausoak ematea.

Azkenik, langileen berdintasunezko kudeaketan, aipatu behar da ekitaldi honetarako, batik bat, indarkeria matxistarik gabeko ingurunea bultzatzearekin lotutako ekintzak zeudela, eta langileen artean sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruzko erakundearen protokoloa zabaldu nahi zela eta talde batzarkideen ingurunean indarkeria matxistaren adierazpenak prebenitu eta horien aurka jarduteko zenbait gomendio eta jardunbide on egin nahi zirela. Horiek egitear gelditu dira, nahiz eta bultzatzeko interesa izan.

Laugarren atalak Barneko eta kanpoko komunikazioaren eremuko informazioa du. Eremu horretan hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzearen aldeko konpromisoa mantentzen da, eta bultzatzen diren berdintasun-ekimen guztiak herritarrei aditzera eman nahi zaizkie.

Azkeneko atala gizarte-eraginaren eremuari dagokio, eta Bizkaiko historian, kulturean eta politikan emakumeek egindako ekarpena ikusgai bihurtu eta aintzatesteari buruzko ekintzen lortze-maila aztertzen da, indarkeria matxista erabat arbuiatzeko feminismoaren lorpenak eta bestelako ekimenak goresteaz gain.

Ildo horri jarraikiz, emakumeen ekarpena aintzateste aldera, ekintzak bultzatzeko Batzar Nagusiek egindako ahalegina antzeman daiteke. Politikaren arloan emakumeak ikusgai bihurtzeko, urtero Martxoaren 8aren inguruan emakume hautatuen batzarrak egiten dira. Era berean, zenbait jardunaldi sustatu dira kulturaren arloan emakumeen ekarpena agerian utzi eta aintzatesteko. Gainera, emakume artisten erakusketak antolatu dira.

Gaur egun ekimen bat abian da industriaren arloan emakumeen ekarpena goresteko. Hala, erakusketa bat dago eta liburu bat argitaratu da. Nabarmentzekoa da azkeneko ekimen honetan Enkarterriko emakume adinekoen taldea aintzat hartu dela, eta lurraldeko gazteei beren kontakizuna azaltzeko aukera eman zaiela, sare sozialetan adierazteaz gain.

Ekimen horiei guztiei ekainaren 28ko erakunde-adierazpena erantsi behar zaie. Dibertsitate afektibo-sexualetik eta genero-dibertsitatetik bizikidetzako eskubidea aldarrikatu da.

Bukatzeko, indarkeria matxistaren esparruan, erabat arbuiatzen duten ekintzak egin dira, baina herritarrei begira zenbait ekintza espezifiko gauzatu gabe gelditu dira.

Lehen aipatutakoaren ildotik, II. Berdintasun Plan honen lehenengo epealdiaren inplementazioaz egindako balorazioa positiboa da, baina zenbait alderdi daude hobetzeke. Aurrerapenak onetsi behar dira mantendu eta betetzear dauden erronkak identifikatzeko. Modu horretan, Batzar Nagusietan berdintasuna sartzeko hobetzen jarraituko da.

2. URTEKO PLAN OPERATIBOAREN LABURPENA (2022ko OTSAILA-2023ko MARTXOA)

Ondorengo taularen helburua da 2022rako eta 2023ko lehenengo hiruhilekorako ekintza-multzoaren ikuspegi orokorra ematea. Hala, helburuen ehuneko altuak (ia % 60) ekintza guztiak burutu ditu.

EREMUA	EKINTZA-ILDOAK	II. BERDINTASUN PLANAREN HELBURUAK	EKINTZEN KOP. GUZTIA	2022-2023ko martxoa	Egikaritzearen %
GOBERNU ONA	1I. Berdintasunaren aldeko konpromisoa	1.1. Berdintasun Taldea indartzea	6	6	% 100
		1.2. Talde batzarkideentzat eta langileentzat berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza gehitzea	3	2	% 67
		1.3. Gobernu-organoetan eta beste egitura politiko batzuetan ordezkaritza paritarioa sustatzea	3	2	% 67
	2I. Genero-ikuspegia txertatzea	2.1. Genero-ikuspegia Batzar Nagusien aurrekontu orokorretan txertatzea	1	1	% 100
		2.2. Datuak biltzean, azterlanak, memoriak eta estatistikak egitean eta kontratazio publikoan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea.	4	2	% 50
		2.3. Batzar Nagusien araudian berdintasunaren printzipioa txerta dadin bultzatzea	4	3	% 75
	3I. Langileen berdintasunezko kudeaketa	3.2. Norbanako-, lan- eta familia-bizitzaren kontziliazio erantzunkidea bultzatzea	1	---	% 100
		3.4. Indarkeria matxistarik gabeko lan-ingurunea bultzatzea	2	1	% 50
	KOMUNIKAZIOA	4I. Barneko komunikazioa	4.1. Dokumentuetan, txostenetan, komunikazioetan, eta abarretan hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista egitea	2	2
4.2. Langileen eta talde batzarkideen artean berdintasunaren arloko edukiak eta ekintzak zabaltzea			5	3	% 60
5I. Kanpoko komunikazioa		5.1. Erakundearen berdintasunaren aldeko konpromisoa ikusgai bihurtzea	2	2	% 100
		5.2. Herritarrei zabaltzen zaizkien berrietan, txostenetan, karteletan, eta abarretan hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista egitea	2	2	% 100
		5.3. Berrietan, prentsa-oharretan eta komunikazio publikoetan generoaren ikuspegia txertatzea	1	1	% 100
GIZARTE-ERAGINA		6I. Emakumeen ahalduntze kolektibo eta soziala	6.1. Bizkaiko historian, kulturen eta gizartean emakumeen ekarpena aintzatetsi dadin bultzatzea	4	4
	6.2. Berdintasunaren arloko lorpenetan feminismoaren aintzatespena sustatzea eta sexu-dibertsitatea agerian uztea		3	3	% 100
	7I. Emakumeenganako indarkeria matxista	7.1. Indarkeria matxistaren aurka erakundearen erabateko arbuioa aditzera ematea	2	2	% 100
		7.2. Sentsibilizazioaren eta jakitun izatearen bidez indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzea	2	1	% 50

3. MEMORIA GOBERNU ONAREN EREMUAN

1I. BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA


1.1. helburua. Berdintasun Taldea indartzea

	Ekintzak	Egoera
1	II. Berdintasun Planari urteko aurrekontua esleitzea plan operatiboetan planteatzen diren ekintzak garatzen direla bermatzeko	Eginda
2	Urtero II. Berdintasun Planaren plan operatiboa eta jarraipen-sistema diseinatu eta inplementatzea	Eginda
3	Berdintasun Taldeak aldizka bilerak egitea II. Plana jarraitzeko eta planean bertan planteatzen diren ekintzak eta estrategiak gauzatzean koordinatzeko	Eginda
4	Berdintasun Taldeak egindako lana eta erakundearen duen eragin-maila urtean ebaluatzeko sistema diseinatu eta inplementatzea	Eginda
5	Berdintasun Taldearen funtzioak zehaztea eta batzarkideen taldeei nahiz langileei aditzera ematea	Eginda
6	Talde batzarkideei beren bileretan Berdintasun Taldearen jarduerari buruzko informazioak sar ditzaten gomendatzea	Eginda

Epealdi honetako lorpen bat da Berdintasun Taldea indartzea, beraz, berdintasunaren aldeko konpromisoan aurrera egin da. Taldea hiru hilez behin bildu da, eta II. Planaren ekintzak inplementatzen zirela bultzatu du. Ekintzen jarraipena baloratu du, eta, gainera, talde politikoei berdintasunaren arloan informazioak helarazi dizkie eta ekintzetan parte hartzeko animatu die.

Horrez gain, Taldeak balorazio positiboa eman die, batez ere, gauzatutako lanari, planteatzen diren eztabaidei, ikaskuntzei eta saioretako giro onari.

Berdintasun Taldearen osuera



Berdintasun Taldean 10 pertsonak parte hartzen dute: % 50 politikariak dira (talde batzarkide guztietako ordezkariak). Gizon bakar batek hartzen du parte taldean, talde politikoen ordezkari batek, hain zuzen ere.

Taldeak bilerak aldizka egiten ditu. 2022ko urtarriletik 2023ko martxora 6 aldiz bildu dira.

- Topaketak 2022an: Urtarrila (2), ekaina eta urria
- Topaketak 2023ko martxora arte: Urtarrila eta martxoa

Bilera horietan, II. Planaren zenbait ekintza bultzatzeaz gain, Berdintasun Taldearen funtzioak definitu ziren, plangintza jarraitu eta baloratzeaz gain.

Hona hemen Berdintasun Taldearen funtzio horiek:

II. Berdintasun Plana inplementatu eta jarraitu dadin bultzatu eta koordinatzea

- ✓ II. Berdintasun Planaren ekintzak gauzatzen direla koordinatzea.
- ✓ Jarraipen eta ebaluatzeako erabilitako tresnak alderatu eta baliozkotzea.
- ✓ Ekintzak jarraitzea eta II. Berdintasun Planak aurrera egin dezan laguntzen eta zailtzen duten elementuak identifikatzea.

Berdintasun arloan erreferente izatea Bizkaiko Batzar Nagusietan

- ✓ Berdintasunaren arloan aurrez ikusitako ekintzak, materialak eta beste ekimen batzuk zabaltzea.
- ✓ II. Berdintasun Planean langileek eta talde batzarkideek parte har dezaten sustatzea.
- ✓ Talde batzarkideentzako gomendioak egitea.
- ✓ Talde batzarkide bakoitzaren kezak eta eskeak biltzea Berdintasun Taldean baloratzeko.

Balorazio positiboa du talde batzarkide guztiek beren bileretan Berdintasun Taldean landutakoari buruzko edukiak jakinarazi eta sartu izana. Ondoren talde desberdinek barne-bileretan landu dituzten gaiak ageri dira:

- Kontziliazioa
- Espazio publikoetan emakumeak nabarmentzea
- Genero-indarkeria
- Emakumeak eta memoria historikoa
- Generoaren zeharkakotasuna politikan
- Bultzatzen diren jardunaldiak, aurkezten diren dokumentuak
- Berdintasun Taldearen bilera bakoitzari buruzko informazioa
- II. Planari egindako ekarpenak batera aztertzea
- Solasean ekintzetan parte hartzea sustatzeko egindako lana

Azkenik, azpimarratu behar da, aurrez ikusitakoarekin ildotik, II. Plana beharrezko aurrekontuaz zuzkitu dela. Ekintzen zenbatekoa ziurtatu da eta ekintza horiek betetzeko langileen lanorduak bermatu dira. Ondorengo taulak berdintasunarekin zuzenean duten harremana duten gastuak bistaritzen ditu eta, gainera, berdintasun-ekintzetarako langileek eman dituzten lanorduak baloratzen dira.

2022ko gastuak	54.869,66 €
Langileen emandako lanorduak	5.000,00 € gutxi gorabehera
2022an berdintasunerako aurrekontua, guztira	59.869,66 €

2022rako Batzar Nagusien aurrekontu orokorra 9.827.937,55 eurokoa izan dela kontuan hartuta, berdintasunera % 0,61 bideratu da.

1.2. helburua. Talde batzarkideentzat eta langileentzat berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza gehitzea

Ekintzak	EGOERA
7 Hiru hilez behin “Solasean” jarduera bat egitea	Eginda
8 Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza	Egin GABE
9 2023ko lehenengo hiruhilekoan Solasean jarduera prestatzeko saio parte-hartzailea egitea	Eginda

Halaber, berdintasunaren aldeko konpromisoa sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak bultzatzeko orduan antzeman da. Bi Solasean jarduera egin dira, bata 2022ko irailean eta bestea 2023ko martxoan. Nabarmendu behar da martxoko azken jarduera baino lehen urtarrilean jardunaldi parte-hartzaile bat egin zela legealdi desberdinetako emakume batzarkideekin. Jarduera honen helburua Solasean jardueraren edukiak prestatzea izan zelarik.

Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko prestakuntza ez da egin agenda-arazoak izan direlako, baina 2023. urtean gauzatzea aurrez ikusia dago.

Solasean ekintzek oso balorazio altua dute parte hartzen duten pertsonen aldetik, hurrengo grafikoetan ikusi daitekeen bezala.

Berdintasun Taldeak ekimen horri garrantzia ematen dio langileei eta politikariei begira berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko eta prestatzeko bitartekoa dela iruditzen baitzaio. Horrez gain, bereziki baloratzen du hausnarketak eta eztabaidak partekatzeko espazio mistoa izatea (langileak eta talde batzarkideak nahasita). Beste alderdi azpimarragarri bat da Berdintasun Taldeak erronkatzat jotzen duela prestakuntza-gune honetan partaidetza areagotzea, berdintasuneari aurrerapausoak emateko duen gaitasun eraldatzailea aintzat hartuta. Beste erronka bat da berdintasunaren gaietan gizonak gehiago inplikatzeko.

Ondoren, jarduerari buruzko zenbait informazio interesgarri ageri dira:


📌 SOLASEAN, 2022ko irailak 23:

Bi orduko prestakuntza izan zen, eta Berdintasunari Buruzko Euskal Legearen aldaketa izan zuten hizpide. Abella Legal aholkularitza-entitateak eman zuen. Saioan, guztira, 14 pertsonak parte hartu zuten, eta emakumeen nahiz gizonen arteko ordezkaritza orekatua gertatu zen.

Taulan partaidetzaren gaineko informazio zehatzagoa dago. Informazio hau, balorazio-galdeketen bidez eskuratu da.

Solasean 2022ko ira.	Talde batzarkideak	Langileak
Emakumeak	1	5
Gizonak	5	1
GUZTIRA	6	6

Saioak balorazio altua izan zuen, eta generoaren ikuspegitik ez dago alde adierazgarririk.




📌 **SOLASEAN, 2023ko martxoak 10, eta aurretiazko saio parte-hartzailea emakume batzarkideentzat:**

Jarduera hau prestatzeko aurretik (urtarrilaren 11n) jardunaldi parte-hartzaile bat antolatu zen Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan. Saio honetan legealdi desberdinetako 13 emakume batzarkidek parte hartu zuten, eta denbora-esparruari dagokionez, VI. legealditik oraingo legealdira arteko epealdia landu zen. Sentsibilitate politiko guztiak ordezkatzeko zitezten emakumeak bildu ziren, talde mistokoak, PP Bizkaikoak izan ezik, ekitaldia komunikatzeko arazoak izan zirela bide. Saioa balio handikoa suertatu zen, eta 2023ko martxoko Solasean jarduerarako oinarrizko dokumentua atera zen bertatik.

Solasean 2023ko martxoa	Talde batzarkideak	Langileak
Emakumeak	9	6
Gizonak	2	---
GUZTIRA	11	6

Saioak balorazio altua izan zuen, eta erantzunetan generoaren ikuspegitik ez zen alde adierazgarririk antzeman, bai, ordea, partaidetzaren ikuspuntutik; bigarren saio honetan, oso gizon gutxi parte hartu baitzuten.



1.3. helburua. Gobernu-organismoetan eta beste egitura politiko batzuetan emakumeen eta gizonen ordezkari-ta paritariotza sustatzea

	Ekintzak	EGOERA
10	Datuak sexuaren arabera banatuta biltzea eta generoaren ikuspegitik batzordeen, gobernu-organismoen eta erakunde-ordezkari-tzen osaera aztertzea	Eginda
11	Genero-analisia egitea eta paritatearen erraztu eta zailtzen duten alderdiak identifikatzea	Eginda
12	Ekintza positiboak diseinatzea eta talde batzarkideei gomendioak egitea	Egin GABE

Jasotako informazioaren arabera, kasu guztietan batzordeak parekideak dira (60-40 tartea), hiru izan ezik. Hiru horietan, Enplegua, Gizarte Zerbitzuen Batzordea (tradizioz esparru feminizatua) eta Estatutuen Batzordea, emakumeen ehunekoa handiagoa da.

Emakumeen partaidetza txikiagoa duten batzordeak, tradizioz maskulinizatuta dauden eremutan ematen da, hala nola, azpiegiturretan, garraioan eta ekonomia nahiz finantzetan.

Batzordea	Emakumeak (%)	Lehendakari-tza
INSTITUZIONAL, GOBERNU ONA ETA GARDENTASUNA	% 60	E
IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA	% 40	E
ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA	% 67	E
OGASUNA ETA FINANTZAK	% 40	
EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA	% 47	E
AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA	% 40	
GARRAIOA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA	% 40	
EKONOMIA SUSTAPENA	% 40	
GIZARTE EKINTZA	% 80	E
AHALDUNAREN ESTATUTUA	% 80	
ARAUDIA ETA GOBERNUA	% 47	E
ESKEAK ETA HARREMANAK HERRITARREKIN	% 47	

Batzordeen lehendakaritzei dagokienez, ordezkaritza paritarioa da, eta batzordeen % 50ean emakumeak dira buru. Batzorde maskulinizatuenetan, bakarrean da emakume bat buru.

Karguen analisiari jarraikiz, hiru batzordetan (Gizarte Ekintza, Azpiegiturak eta Garraioa) genero-estereotipoei eusten zaie. Gizarte Ekintzaren Batzordean 3 karguak emakumeak dira; Azpiegitura eta Garraio Batzordeetan, ordea, kargu guztiak gizonak dira. Kargu bakarreko batzordean, kargua gizonak betetzen du. Karguen analisiarekin amaitzeko, lehendakaritzek eta lehendakariordetzek banaketa paritarioa dute; idazkaritzek erreparatzen badiegu, berriz, gizonak ugariagoak dira.

5 taldetatik 4k esan dute batzordeetan generoaren analisia egiten dutela, eta batzordeetan parte hartuko duten pertsonak erabakitzeke orduan batzordea paritarioa izan dadin kontuan hartzen dutela.

Talde batzarkideek elementu-sorta bat identifikatu dute partaidetza paritarioa sustatzeko. Zailtzen duten elementuen zerrenda ere egin dute.

ERRAZTEN DUTE	ZAILTZEN DUTE
<ul style="list-style-type: none"> • Zerrendak nahitaez paritarioak izatea • Paritarioak izateko konpromisoak hartzea • Batzordeen hasierako osaera paritarioa • Talde batzarkidearen sentsibilizazioa eta konpromisoa • Berdintasun batzordean eta beste erakunde batzuetan kontu ematea, komunikatzea eta bilerak egitea • Batzordeetako lanekin eta gaiekin bateratze lana egitea • Zerrendak egitean aztertzea • Beste pertsona batzuk ordeztean malgutasuna izatea • Arduraldi osoa izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kideen kopurua • Arloa ezagutzea • Deialdiaren eta batzordearen arteko denbora urria • Espezializazioa gaien arabera • Hautaketan barne-dinamika • Bozeramailea izendatzea • Denbora-eskuragarritasun (eza)

Oraingoz talde batzarkideek egiteko ekintza positiborik edo gomendiorik ez da diseinatu, arlo maskulinizatuekin lotutako batzordeetan (azpiegiturak eta garraioak) emakume gehiago eta tradizioz emakumeek presentzia handiagoa duten batzordeetan (gizarte-esparrua) gizon gehiago sartzeko.

2I. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA

2.1. helburua. Genero-ikuspegia Batzar Nagusien aurrekontu orokorretan txertatzea

	Ekintzak	EGOERA
13	2023ko Batzar Nagusietako aurrekontu orokorrak egokitzea, genero-ikuspegia sartzeko	Bidean

Jarduera ez egin arren, zenbait talde batzarkidek proposamenak egin dituzte genero-ikuspegia sartuta Batzar Nagusien aurrekontuak egokitzeke. Ekintza hau aurreko atalean aurrez ikusitako prestakuntzaren ondoren gauzatzea planteatzen zen, baina 2023ko hirugarren hiruhilekora atzeratu da. Horregatik, hurrengo ekitaldian egiteke utzi da.

2.2. helburua. Datuak biltzean, azterlanak, memoriak eta estatistikak egitean eta kontratazio publikoko prozesuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea

	Ekintzak	EGOERA
14	Erakundeak bultzatzen dituen memorieta eta jardueretan datuak sexuaren arabera banatuta biltzea eta datu horien analisi kualitatiboan genero-ikuspegia txertatzea	Eginda
15	Intereseko aldagai bat sartzea (sexuaren aldagaiaz gain)	Egin GABE
16	Kontratazioetan gizarte- eta berdintasun-klausulak mantentzea, EMAKUNDEk emandako gidalerroak kontuan hartuta	Eginda
17	Kontratazioetan enpresa adjudikaziodunek ezinbestez Berdintasun Plana egin behar izana sartzea, eta egikaritze-baldintza berezi hori betetzen ez badute, zehapen-neurriak aurrez ikustea	Egin GABE

Datuak sexuaren arabera banatuta biltzeko eta genero-analisia egiteko aurrera egiten ari da, baina txosten honetan genero-analisi horren informazio kualitatiboa ezin izan da jaso. Sexuaren aldagaiari erreparatzen zaio, baina oraingoz ez da bestelako aldagairik gehitu zenbait informazio eta/edo partaidetza aztertzeke.

Kontratazioan berdintasunaren begirada sartuta dago, kontratazio guztiek berdintasun-klausulak aintzat hartzen baitituzte. Bestalde, enpresa adjudikaziodunek Berdintasun Plana izatearen klausula sartu ez den arren, bi punturekin berariaz baloratzen da kontratua gauzatuko duten langileei dagokienez genero-berdintasunean neurri espezifikoa hartzea eta enpresa lizitatzailak berak deskribatu behar ditu proposatutako neurriak.

2.3. helburua. Batzar Nagusien araudian berdintasunaren printzipioa txerta dadin bultzatzea

	Ekintzak	EGOERA
18	Generoaren ikuspegitik araudian aldaketa-proposamenak jasotzea baloratzeko eta etorkizunean eguneratzean sartzeko	----
19	Talde batzarkideei gomendatzea foru-arauak Batzar Nagusietan izapidetzen direnean, aurkezten diren genero-eraginari buruzko txostenak kontuan hartu eta berez baloratzeko	Eginda
20	Talde batzarkideei gomendatzea aztergaien zerrendan landu behar den araudiari buruzko genero-eraginaren balorazioa berariaz sartzeko, batez ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria arrakalan eragin berezia duten araudien kasuan	Eginda
21	Talde batzarkideei gomendatzea BFari taldeko genero-eraginaren balorazioa legez itzultzeko araua eztabaidatzean kontuan har dezan	Eginda

Talde batzarkideek diote sistematikoki azpimarratzen dutela araudi berrietan genero-ikuspegia sartu ahal izateko eta genero-eraginari buruzko txostenak baloratzeko. Ildo horri jarraikiz, nabarmendu behar da talde batzarkide gehienek esanetan zenbait foru arautan genero-eraginari buruzko txostenak berariaz baloratzen dituztela edo eskeak egin direla balorazio hori aztergaien zerrendatan sartzeko.

Berdintasun Taldearen ustez, eske horri eusteak eta sistematikoki sartzeak foru araudietan lorpenak eta aurrerapenak ekarri ditu. Hala, adibide modura jartzen dira martxoaren 22ko Osoko Bilkuran onetsi ziren arauak, lehenengoz sartu baitute lehenengo xedapen gehigarrian genero-ikuspegia kontuan hartzea.

Beste ekintza bati buruzko berezko informaziorik ezin izan da bildu, beraz, etorkizunean araudia eguneratzeko proposamenik sortu den ezin daiteke zehaztu.

3I. LANGILEEN BERDINTASUNEZKO KUDEAKETA

3.2. helburua. Norbanako-, lan- eta familia-bizitzaren kontziliazio erantzunkidea bultzatzea		
	Ekintzak	EGOERA
22	Jaiotzaren edo adopzioaren kasuan baimen berdinen eta besterenezinen bermea mantentzea	Ez dagokio

Jasotako informazioaren arabera, epealdi honetan, ez da egoera honetan inongo gizonik egon, beraz, epealdi honi ez dagokio.

3.4. helburua. Indarkeria matxistarik gabeko lan-ingurunea bultzatzea		
	Ekintzak	EGOERA
23	Talde batzarkideentzat indarkeria matxistaren adierazpen desberdinetarako prebentzio- eta jarduketa-dekalogoia egitea	Egin GABE
24	Sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruzko protokoloa zabaltzea	Eginda

Talde batzarkideentzat indarkeria matxistaren adierazpen desberdinetarako prebentzio- eta jarduketa-dekalogoia egitea aurrez ikusia zegoen, sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruzko protokoloa langileei zuzenduta baitago. Dena den, xede horrez, aurretiaz arlo horretan prestakuntza egitea aurrez ikusia zegoen, gerora, dekalogoia errazago gauzatzeko. Epealdi honetan formakuntza hori egin ez denez, talde batzarkideetan indarkeria matxistaren azalpen desberdinak prebenitu eta horien aurrean jarduteko jardunbide onak identifikatzea atzeratu da.

[Sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruzko protokoloa](#) Batzar Nagusien webgunean eskuratu daiteke.

4. KOMUNIKAZIOAREN ESPARRUKO MEMORIA

4I. BARNEKO KOMUNIKAZIOA

4.1. helburua. Erakundearen barruan zabaltzen diren dokumentuetan, txostenetan, jakinarazpenetan, eta abarretan hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista bultzatzea

	Ekintzak	EGOERA
1	Bizkaiko Batzar Nagusietan Berdintasunezko Komunikazio Gida zabaltzea	Eginda
2	Urtero aldizka zenbait barne-dokumentu, langileentzako jakinarazpen, txosten, azterketa, etab. ikuskatzea	Eginda

Batzar Nagusien Berdintasunezko Komunikazio Gida webgunean argitaratuta dago, eta erakundearen jakinarazpenak gidatzen dituen dokumentua da. Era berean, talde batzarkideek adierazi dute gida hori erabili eta txertatzen dutela beren jakinarazpenak egiteko orduan.

Komunikazio Arloak aldizka ausaz barne-dokumentuak ikuskatu ditu gidan ageri diren irizpideak sartuta daudela bermatzeko.

4.2. helburua. Langileen eta talde batzarkideen artean berdintasunaren arloko edukiak eta ekintzak zabal daitezzen bultzatzea

	Ekintzak	EGOERA
3	Talde batzarkide berriei begira, berdintasunaren arloko berriazko materialekin ongi etorria emateko txostena egitea.	Ez dagokio
4	Talde batzarkide berriei II. Berdintasun Plana eta 2022ko ekintzak aurkeztea.	Bidean
5	Langileentzat eta talde batzarkideentzat berdintasunaren arloan intereseko materialak zabaltzea	Eginda
6	Langileentzat eta talde batzarkideentzat II. Berdintasun Planaren ekintza zehatzak zabaltzea eta partaidetza indartzea	Eginda
7	II. Berdintasun Plana eta urteko plan operatiboak, bai eta jarraipen- eta ebaluazio-txostenak ere zabaltzea	Eginda

Berdintasunaren arloan intereseko materialak langileen eta talde batzarkideen artean zabaltzea. Horretarako, oharrak, webgunea eta talde batzarkideen bilerak erabili dira.

Bost taldetatik lauk aipatu dute II. Berdintasun Planaren aurkezpen bat egin dutela eta Berdintasun Taldean landutakoa beraien taldeetako bileretan zabaltzea. Gainera, talde batzarkideko pertsonen Solasean jardueran eta aurretiazko saio parte-hartzailean parte hartzeko gonbita luzatu diete.

Ongi etorria emateko txostenari eta talde batzarkide berriei aurkezteari dagokionez, berdintasunaren arloko dokumentu nagusiak 2023an legealdi berria hasten duten pertsonen aditzera eman nahi zaizkie.

5I. KANPOKO KOMUNIKAZIOA

5.1. helburua. Erakundearen berdintasunaren aldeko konpromisoa ikusgai bihurtzea

	Ekintzak	EGOERA
8	Berdintasunaren gaineko plangintza eta berdintasunaren arloko ekintzen berriak webgunean zabaltzea.	Eginda
9	Berdintasunaren esparruan erakundearen aurrerapausoak eta hartutako konpromisoak berriaz erakusteko berriak egitea	Eginda

Batzar Nagusien webguneak berdintasunaren arlorako berezko atala du, eta etengabe gehitzen da arloarekin zerikusia duen informazio guztia.

2022ko urtarriletik abendura 14 berri argitaratu dira berdintasunari dagokionez egindako ekintzak, onetsitako dokumentuak eta erakunde-adierazpenak jakinarazteko. Erakundearen webgunean berdintasunaren aldeko konpromisoa zabaltzeaz gain, sare sozialetan (Instagram, Twitter eta Facebook) berdintasunarekin lotutako postak argitaratu dira.

Webgunea	5.917 bisita
Facebook	3.131 argitalpen-irismen
Twitter	329 inprimaketa/egun
Instagram	Argitaratu diren posten % 1,09 berdintasunari buruzko edukiak dira

5.2. helburua. Herritarrei zabaltzen zaizkien berrietan, txostenetan, karteletan, eta abarretan hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista bultzatzea

	Ekintzak	EGOERA
10	Irudiak argitaratzeko orduan irizpide gisa emakumeen dibertsitatea eta genero-rolen urradura kontuan hartzea	Eginda
11	Hizkuntza inklusiboaren eta genero-rolak urratzen eta dibertsitatea agerian uzten dituzten irudien erabilerari buruzko integrazio-maila baloratzeko berriak, kartelak eta argitalpenak ikuskatzea	Eginda

Talde batzarkideek diote Batzar Nagusiek zehaztutako komunikazio-irizpideak erabili dituztela jakinarazpenak egiteko orduan eta, gainera, talde batzuek beren irizpide propioetara ere jo dute. Irizpide horiei buruzko informazio zehatzik ezin izan da jaso, beraz, informazio hori agerian utzi eta trukatzeko aukera gauzatzeko gelditu da.

Batzar Nagusien Komunikazio Arloak zabaldu dituen berri eta argitalpen guztiak ikuskatu dira hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista bermatzeko. Horrez gain, aldizka beste dokumentu batzuk ikuskatzen dira helburu bera ziurtatzeko.

5.3. helburua. Berrietan, prentsa-oharretan eta komunikazio publikoetan generoaren ikuspegia txertatzen dela bultzatzea

	Ekintzak	EGOERA
12	Talde batzarkideei gomendatzea irizpideen zerrenda bat ordezkartza politikoaren estaldura mediatiko ez-sexista, estereotiporik gabekoa eta orekatua egiteko	Bidean

Aurreko helburua baloratu denean aipatutakoaren ildotik, nahiz eta talde batzarkideek jakinarazpen publikoetan genero-ikuspegia bermatzeko irizpideak erabili, ez da bildu berariaz zer irizpide-motaz baliatu diren eta dokumentu bat egiteke dago talde batzarkideen jardunbide onak biltze aldera.

5. GIZARTE-ERAGINAREN ESPARRUKO MEMORIA

6I. EMAKUMEEN AHALDUNTZE KOLEKTIBO ETA SOZIALA

6.1. helburua. Bizkaiko historian, kulturen eta gizartean emakumeen ekarpena aintzatetsi dadin bultzatzea		
Ekintzak		EGOERA
1	Urtero emakume hautatuen batzar bat egitea	Eginda
2	Herritarrentzako jarduerak gauzatzea emakumeek Bizkaiko gizarteari egin dioten ekarpena agerian utzi eta aintzatesteko	Eginda
3	Emakumeek Bizkaiko lurraldeko historian, ekonomian, kulturen eta politikan egindako ekarpenari buruzko azterlanak gauzatzea	Eginda
4	Urtero emakume hautatuen batzar bat egitea	Eginda
6.2. helburua. Berdintasunaren arloko lorpenetan feminismoaren aintzatespena sustatzea eta sexu-dibertsitatea agerian uztea		
Ekintzak		EGOERA
5	Martxoaren 8a ospatzeko erakunde-adierazpena egitea	Eginda
6	Martxoaren 8aren inguruan herritarrentzako jarduera bat egitea (jardunaldia, hitzaldia, erakusketa, etab.)	Eginda
7	Sexu-dibertsitatea ikusgai bihurtzeko jarduera bat gauzatzea	Eginda

Gizarte-eraginaren esparruaren barruan zenbait ekimeni emandako bultzada azpimarratu behar da, herritarrei begira emakumeak nabarmentzea eta aintzatestea sustatu baitute. Gainera, 2022ko ekainaren 28an, LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, Batzar Nagusiek [erakunde-adierazpena](#) egin zuten dibertsitate afektibo-sexualetik eta genero-dibertsitatetik bizikidetzaz-erakunde aldarrizatzeko.

📌 EMAKUME HAUTATUEN BATZARRA 2022an eta 2023an (Gernika)

[2022ko Emakume Hautatuen Batzarrean](#) 60 emakume parte hartu zuten Bizkaiko kulturari hain ekarpen handia egiten dioten emakumeak aintzatetsi eta omentzeko. Halaber, [Martxoaren 8ko Erakunde Adierazpena](#) irakurri zen.

[2023ko Emakume Hautatuen Batzarrean](#) 200 emakume baino gehiagok parte hartu zuten, eta alderdi politiko guztietan nahiz zenbait agente-espaziotan zituzten karguak. Ekitaldi honetan, udal-politikan emakumeen zeregina ikusgai bihurtu eta aldarrizkatzeaz gain, Ederne Pasaban alpinistari omendu zitzaion.

📌 LANTEGIETAKO EMAKUMEEN ERAKUSKETA

[LANTEGIETAKO EMAKUMEAK](#) erakusketaren helburua da XIX., XX. eta XXI. mendeetan Bizkaiko industriaren garapenean emakumeen zeregina nabarmentzea eta aintzatestea. Erakusketak ibilbideari Bilbon ekin zion. 50 argazkiren bitartez gerra osteko industria mantentzeko emakumeen oinarrizko zeregina erakusten zen. Bilbon gutxi gorabehera 354 pertsonak bisitatu ostean,

Abellanedako museoaren egoitzara eraman zen, eta bertan 12.615 pertsonak bisitatu ahal izan zuten erakusketaren bertsio zabalagoa.

Argazki-erakusketaz gain, ekintza hau osatzeko Javier Barrioren “Obreras. Lantegietako Emakumeak” liburua argitaratu da eta [“Amama Influencer”](#) belaunaldien arteko proiektua gauzatu da. Azkenekoa azaroaren amaieran abian jarri zen Enkarterriko Museoan. Helburua da gerra osteko industria mantendu zuten emakume adinekoen esperientziak berreskuratu eta baloratzea, eta beren kontakizuna Enkarterriko gazteei helarazteko aukera ematea.

📁 “EMAKUMEAK BIZKAIAN” III. JARDUNALDIAK

2023ko otsailean, Batzar Nagusiek [“Emakumeak Bizkaian” III. Jardunaldiak](#) bultzatu zituzten, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Bizkaiko Batzordearekin batera. Jardunaldien hirugarren edizio honek, *“Talentua, kooperazio-kultura eta gizarte-proiektzioa”* izenpean, diziplina eta eremu desberdinetako erreferentziazko emakumeak bildu zituen Bizkaiko emakumeen rolari buruz eztabaidatu eta ikusgai bihurtzeko.

Otsaileko 4 arratsaldetan eta 4 mahai-ingururen bitartez beren eremuetan erreferentziazko 13 emakumeren esperientziak agerian jarri ziren. Lurraldean berdintasunaren alde beren lana eta aurrerapausoak nabarmendu ziren.

📁 “XXI. MENDEKO EMAKUME ARTISTAK. HEMEN GAUDE!” ERAKUSKETA

Denboraldi honetan beste ekintza batzuk egin ziren Bizkaiko historian, kulturean eta gizartean emakumeen ekarpena aintzatetsi dadin bultzatzeko, hala nola [“XXI. mendeko emakume artistak. Hemen gaude!”](#) erakusketa. Erakusketa horrek emakume artistek sortutako 20 artelan ditu.

7I. EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTA

7.1. helburua. Indarkeria matxistaren aurka erakundearen erabateko arbuioa aditzera ematea		
	Ekintzak	EGOERA
4	Erakundearen eraikinetan arbuiatzeko bereizgarriak jartzea, Bizkaian indarkeria matxistaren ondorioz erailketak eta/edo eraso larriak daudenean	Eginda
5	Erakundearen ordezkaritza batek salaketa publikorako ekitaldietan parte hartzea, halako kasuak gertatzen direnean	Eginda
7.2. helburua. Indarkeria matxista prebenitzeko sentsibilizazioa eta kontzientzia areagotzea		
	Ekintzak	EGOERA
6	Indarkeria matxista arbuiatzeko erakunde-adierazpena egitea Bizkaian indarkeria matxistaren ondorioz erailketak eta/edo eraso larriak daudenean.	Eginda
7	Azaroaren 25aren inguruan herritarrentzako jarduera bat egitea (jardunaldia, hitzaldia, erakusketa, etab.)	Egin GABE

Erakundean bereizgarriak (puntu moreak) bistaratu dira, eta gauza bera egin dute talde batzarkideek Bizkaian erailketa matxista bat gertatu denean. Gainera, kasu horietan salaketa publikorako ekitaldiak egin dira, beste erakunde batzuen deialdietara batzeaz gain. Salatzeko erakunde-ekitaldiei dagokienez, Berdintasun Taldeko partaideek eta talde batzarkideetako gainerako kideek parte hartu dute.

Batzar Nagusiek [indarkeria matxista arbuiatu zuten](#) Bilbon abenduan erailketa matxista izan zenean eta Osoko Bilkurak onetsi ostean, adierazpen bat egin zen. Era berean, Azaroaren 25ean Gernikan [erakunde-adierazpen](#) bat egin zen, eta talde batzarkide guztietako ordezkariak izan ziren.